

# DIRU-SARRERAK

Aktiboen salmenta da gure enpresaren diru-sarrera, hau da, eskatutako betaurrekoak haizetako-garbigailuekin saltzea.

Baliabideetan idatzi dugun bezala, gure enpresaren aktibo garrantzitsuenak hauek dira: Jonen gaitasuna diseinua sortzeko, hau da, betaurrekoen formak egiteko, kolorea aukeratzeko, etab. Naiara webguneataz arduratuko da, bertara argazkiak igoko ditu eta eskaintzaren bat edukiz gero, bertan idatziko du bezeroak jakin dezaten. Webgune hori eguneratuta eramango duena izango da Naiara. Maiketek gaitasuna du betaurrekoak egiterako orduan, monturan torlojuak jartzen, beraz, produktua berak bukatuko du. Eta Martak, berriz, erraztasun handia du bezeroak konbentzitzeko, gogo handiz lan egiten duelako salmentan.

Haizetako-garbigailua duten betaurreko pertsonalizatuak dira gure enpresaren diru-sarreraren aktiboak. Gainera, ordainketak plazu bat baino gehiagotan ahalko dira ordaindu, hau da, betaurreko asko erosiz gero, 100 adibidez, posible izango litzateke 2 edo 3 plazutan ordaintzea. Gainera, merkeagoa aterako da, kostutan esan bezala, betaurreko batek 70 euro balioko du, baina 100 betaurreko erosiz gero, 550 euro.

Gure betaurrekoak merkatuaren egoeraren arabera aldatuko dira, hots, produktua asko saltzen ari dela ikusten badugu, prezioak pixkatxo bat igoko ditugu ea berdin saltzen dugun ikusteko eta horrela, gehiago irabaziko dugu. Alderantziz bada, berriz, jeitsi egingo ditugu gehiago saldu ahal izateko eta bezeroak asebeta daitezen.

Gainera, urtaroen hasieran eskaintza batzuk proposatuko dizkiegu gure bezeroei, eta horrela, guk gehiago irabazi ahal izango dugu.

